

IRITZIA

DSS2016: Diziplina ospakizun



Andeka Larrea

Filosofian eta Gizarte
Antropologian lizentzia-
tua eta irakaslea

Jasotze data: 2015-09-19
Onartze data: 2015-12-28

+++++

Arinkeria eta errazkeria eman dezakeen arren, Europako Kultur Hiriburutza Donostian (DSS2016) ospatzea hau besterik ez da: Kapitalaren Europak kulturaz duen ikuskera berezia goraipatzea, irudikatzeko (irudikatzen saiatzeko, behintzat) europar hiritartasunak oinarrian omen duen egitasmo kulturalaren ideal ilustratu higatuak. Hala ere, Europako Kultur Hiriburu izendatutako hirietan kulturaren ikuskera abstraktu eta ameslaria gauzatzeko saiakera horren atzean, EBren diseinu neoliberalaren eszenografia ziudadanistari eusteko estrategia diziplinario bat dago.

Kultura leit motibatzat hartu ohi duten horrelako hiri-ekimen instituzionaletan, diskurtsoa arreta bereziz landu ohi da. Bestela, irudi lezake helburu nagusia diru publikoa esku pribatuetara igortzea dela kultura-zerbitzuak ematearen truke, nahiz eta logika horretatik at askoz merkeagoak izango liratekeen. Donostiaz denaz bezainbatean, Hiriburutza aurkeztu behar duten kudeatzaile publiko eta pribatuek trebetasunez darabilte erretorika ziudadanista; izan ere, ekimen transformatzaile bat balitz bezala aurkeztu nahi digute, zeinean bake, elkartasun eta bizikidetzaz irudikatutako ametsek Donostiako kaleak hartuko baitituzte urte oso batez. Hiri-kulturaren ikuskera idealista eta iruzurti horrek, hiria kulturen leku antropologikoa den heinean, oinarrian dituen diziplinatze-mekanismoak eta iruzurra ezkututzen ditu.

Lehenik eta behin, iruzur politikoa. Oztantasun orokorra eta delegazioa nagusi diren garaiotan, non sistemaren kontrako kultura-adierazpenak komunikabideek sortutako panoptikotik desagertzen diren, ordezkari politikoentzat, udal-ordezkarientzat bereziki, erakargarria da egiten dutela

ikusaraztea. Beren interesentzat oso samurra ez den eta kontraesanaz zein indarkeriaz beterik den errealitatek ihes egitearren, kultura-politika jakin bat sustatzen saiatzen dira: hiri-espazioa modako merkatu-nitxo bihurtu duten indar ekonomikoen mendeko kultura-politika hotsandikoa. Indar eta interes ekonomiko horiek, hain zuzen ere, nazioz gairidiko mailan dihardute eta haien frankizietako bat DSS2016ren sustatzailea da, gure EB maitea.

Bigarrenik, iruzur kulturala. Hiruzpalau hitz eder elkarturik, hala nola partaidetza, sormena eta bizikidetzeta, aurreko paragrafoan aipatutako testuinguruan, DSS2016 ekitaldiz jositako eta hiritarrei zabalduetako kultura-ekimena delako simulakroa egin daiteke, aspertu arte. Diskurtso horrek, hutsalakeriaz beteak (baina propaganda gisa eraginkorra), paper estrategikoa du Hiriburutzaren helburu nagusia ezkutatzeko, zeina, izenak adierazi bezala, kapitala transferitzea eta mozkinak sortzea besterik ez baita, eta ez soilik ekonomikoak, ikusiko dugun bezala. Inbertsioak erakartzeko (hots, enpresak diruz laguntzeko) hirien arteko lehia ekonomikoaren testuinguruan, kultura merkantilizatu egiten da, eta gure gorputzak, errutinak, ohiturak eta gurariak aktibo garrantzitsuena bihurtzen dira kapitalismo finantzario globalaren mutazioen behin-behineko gauzatze geografikoetan. Horrela, DSS2016 EBren egitasmo diziplinarioaren gertaera geografikoa besterik ez da.

Hitz egin genezake espazio fisiko eta sinbolikoaren horrelako okupazioaren arrakastaz arlo politiko eta kulturalan. Hau da, magnitude horretako adostasuna eta hegemonia kulturala ahalbidetzen dituen inertziaz. Soilik al da hiritarren arduragabekeria eta interesik eza? Ageri denez, neurri batean



Irudiak ~ *Diziplina.*
Egilea ~ Andeka Larrea (cc-by-sa)

horrela da, bai, kultura ulertzen dugunean publikoaren kudeatzaileek kontzeptualizatzen duten moduan, alegia, beste batzuek eskaintzen duten espektakulu, gertakari edo ekitaldiaren ikusle bihurtzen garenean, haien ordezkatzetoberearen euskarri den gizarte-itunaren parte gisa. Hala ere, aintzat hartu behar da kultura hiri-gertakari globalak artikulatu nahi dituen merkantzia kontable bihurtzen denean, gizarte-itunaren oinarrian diren adostasunak, berez ahulak izan ohi direnak, ez direla nahikoak izaten horrelako ekimenei eusteko.

Orduan, Hiriburutzaren aurreko eta ondoko elementu diskurtsibo eta espazialek, batetik, gertakari globalaren eskaintza jasoko duten kontsumitzaileak diziplinaka limurtu behar dituzte, eta, bestetik, zenbait tresna sinboliko erabiliz, gonbidatu nahi ez direnak kanpoan utzi. Lehenengoan artean, klase ertaineko hiritar-eredua dugu, zeinak kale, plaza zein bestelako ekipamenduetako aisia- eta kultura-eskaintza identifikatzen baitu homogeen eta baketutzat duen espazio batean eskaintza horretaz gozatzeko duen gaitasunarekin. Bigarrenen artean, kultura eta tolerantziaren festara gonbidatzen ez diren hiritar disidente eta diziplina gutxikoak ditugu, beste arrazoi batzuen artean, justizia espazialaren gezurrezko ideal horretara iristeko dirurik ez dutenak. Beraz, espazio-bazterketa bilatzen duen joera zeharo konplexu batekin egiten dugu topo; izan ere, joera horren diskurtso ziudadanistak, beharrezko estimuluak baliatuta, hiritar diziplinatu dirudunen desioak gauzatzeko espaziotzat hartzen du hiria.

Hiriburutzaren, hirigintzaren eta finantza-kapitalismoaren

mutazio geografikoen arteko harremana honen arabera azter daiteke: Hiriburutzaren inguruan artikulatutako politika espazialen arabera eta horrek eragindako ezberdintasun espazialen arabera. “Kultura-ekosistema” kontzeptuak, hiri-marketingaren hizkeran ospe handia eskuratu eta Tabakalerako arduradunek pozez onartu dutenak, artikulazio hori ulertzeko modua eskaintzen digu.

Gaur egungo hirigintzak, alor horren hastapenetatik datorren herentzia jasoz eta gizarte-darwinismoaren tradizioari eutsiz, naturaren legeek araututako ekosistema naturaltzat hartzen du hiria, zeinean posible baita teknikoki jardutea haren osasuna eta hazkuntza sustatzeko, bereziki asko eta askotarikoak diren hiriaren gaixotasunen kontrako borrokan. Hiri-espazioan (kuantitatiboki ulertuta) egiten diren aldaketa eta mutazioak —sarritan zorrotzak— hiri-gorputzaren etengabeko hobekuntzara eta haren osasuna hobetzera edo berreskuratuzera zuzentzen dira. Hirigintza-praktikak garaian garaikoak eta garatzen diren testuinguru historikokoak diren neurrian, pentsatzekoa da sistema ekonomiko eta politikoaren krisiak eragina izan eta izango duela hirigintzan eta hirigintzaren helburuan. Horrela, bada, gaur egungo kapitalismo postfordistan, hirigintzak eta haren hiriko eraginak bizi ditugun garaien halabeharra islatzen dute, zeinak, lehengo lepotik burua, etekin, salgai eta merkatu-nitxoak bilatzen dituen natura-baliabideak agortzen ari diren testuinguru batean. Orduan, bostekoa ematen diote elkarri hiriak eta hirigintzak, errendimendu handiko espazio merkantilizatuak sortzeko Kapitalak duen espazioak irensteko nahi aseeginarekin. Gure kasua da, DSS2016.

Kalearen, gizarte-jardueren, hiri-estilo eta -bizimoduen, hitz batean, kulturaren beraren merkantilizatze-prozesu horretan, giza gorputzak protagonista bihurtzen dira, beraiek baitira Hiriburutzaren egitasmoaren bideragarritasun eta arrakastaren baldintzetako bat. Arrakasta hori kontabilizatu egingo da: zenbat eta bisitari, ekitaldi, elkarrizketa, erreportaje eta abar gehiago, gero eta kapital sinboliko, politiko eta ekonomiko gehiago, eta publikoaren kudeatzaileak zein enpresak irrikaz daude hori guztia jasotzeko. Agerikoa denez, publikorik eta eszenografiarik gabe, ez dago antzerkirik, eta are gutxiago, txalorik. Orduan, gorputzaren politikaz (edo biopolitikaz) eta diziplinatze- eta ideologizatze-mekanismoez gogoeta egitean, DSS2016ri begiratzen diogu, araututako eta gatazkaz hustutako hiritarrak eta praktika espazialak sortzeko tresna balitz bezala.

Gorputzaren politika horrek sailkatu, bereizi, barne sartu edo kanpo utzi egiten ditu nola gorputzak hala praktika espazialak. Barne sartzearen aldetik, sinbolikoki eta politikoki zehazten du zein diren hiritar onaren estandarrak eta esleitzen ditu arrakasta lortzeko behar diren rolak. Hiritarra ikusle topatzen dugu, hiritarra eszenografia, hiritarra kontsumitzaile, hiritarra artista eta kolaboratzaile eta abar. Kanpo uztearen aldetik, desberdintasuna sinbolikoki gaindeterminatzen du eta politikoki laidoztatzen du, autobazterketa errazteko, eta bidegarri gertatuko ez balitz, praktika espazial eta gorputz gatazkatsuak kanporatuko lituzke kultura eta diziplinaren festa ospatzen den espazio erritualizatutik. Katetoria horretan gorputz markatuak topatzen ditugu: txiroak, etorkinak (erdi-mailako klasetik behekoak), dinamikoak ez diren agure-atsoak, disidenteak, outsidersak eta abar. Ezarritako helburuak lortzeko

mekanismo biopolitiko konplexu hori martxan jartzeak erabateko hegemonia kulturala eskatzen du. Arrakasta lortzearen, hegemonia horrek, neurri sinbolikoak nahikoak ez direnean, fisikoki desagerraraziko ditu gorputz disidenteak nagusikeriaren kontrako egitasmo kulturalak gauzatzeko erabiltzen dituzten lekuak. Kortxoenea gaztetxea da azken adibidea, hirigintza erabiltzen da diziplinatze tresna gisa eta hiria edertzearen aitzakiapean higiezinaren negozioa errazteko tresna gisa.

Zaila da aurreikustea DSS2016 hiri-gertakari globalak arrakastarik izango duen, analisi honetan adierazitako terminoetan, edo porrot egingo duen. Ezkor egoteko modua litzateke pentsatzea besterik gabe onartuko direla hegemonia kultural zitudanistaren egonkortzea eta erresistentzia, disidentzia eta alternatibarik gabeko diziplinatze-gaitasuna. Baikorregiak izango ote ginatete baldin gorputz matxinatu eta intsumitu horiek ikuskizunaren deiar entzungor egingo diotela pentsatuko bagenu? Auskalo, baina dagoeneko Donostia negozio eta merkaturtat hartzen duen joerak eraldaketa espazialak eragin ditu, eta neurri handi batean azken hamarkadetako hirigintza-politiken ondorio diren gizarte-desberdintasunak areagotzen dituzte aldaketa horiek. Bestetik, Hiriburutza dela-eta piztutako eztabaidak, metroaren egitasmoak eta Kortxoenearen aldeko mobilizazioak zenbait erresistentzia eta disidentzia sortu dituzte, eta haien bilakaerak hiriko demiurgo eta planifikatzaileen diseinu idealista zapuztu eta ihesbideak ekar ditzake.

+++

* Ander Altunak itzulia